Bestelako Xedapenak

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

5935

AGINDUA, 2010eko azaroaren 24koa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena; honen bitartez, Gizarte Larrialdietarako Laguntzen programaren kreditua 2010ean handiagotzera bideratutako 6.700.000 euroko ezohiko partida esleitzen zaie Euskal Autonomia Erkidegoko Udal eta Mankomunitateei.

Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean jasotako prestazio ekonomikoetako bat dira Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL), eta gizarte-marjinazioko egoerak prebenitu, saihestu edo leuntzera zuzenduta daude.

2010erako EAEren aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 2/2009 Legean 17.300.000 euroko kreditua bideratzen da Gizarte Larrialdietarako Laguntzen programa finantzatzeko, baina egiaztatu ahal izan denez, partida hori ez da nahikoa EAEko udaletatik iritsitako eskabide guztiei erantzuteko.

Hasiera batean Gizarte Larrialdietarako Laguntzetara bideratutako 17.300.000 euro horiek 56. zenbakiko EHAAn argitaraturiko 2010eko martxoaren 24ko Aginduaren barnean hartutako irizpideei eta banaketari jarraiki esleitu zitzaizkien EAEko udalerri eta mankomunitateei.

Programa horretako premien itxiera-aurreikuspen bat eskatu zaie udalei, eta ikusi ahal izan denez, laguntza horien eskariak hazkunde handia izan du krisialdi ekonomikoaren eraginaren ondorioz. Egiaztatu denez, egoera horren eraginez herritar askoren bizi-egoerak nabarmen okertzen ari dira, eta horrekin batera, udalek erabil ditzaketen baliabide ekonomikoak murrizten ari dira; izan ere, helburu horietarako Eusko Jaurlaritzaren aldetik jasotzen zuten dirua beren aurrekontuekin osatzen zuten hainbat eta hainbat udalek.

Beraz, beharrezkoa da 2010eko ekitaldian GLLen programaren premiak betetzeko 6.700.000 euroko kreditu-partida gehigarria finantzatzea. Diruhornidura berri bat da, Gobernu honek egiten duen aurrekontu-ahaleginaren ondoriozkoa, Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurka Borrokatzeko Europar Urte honetan, gure gizarteko biztanleria babesgabeenaren artean krisialdi ekonomikoak dituen ondorioak arintzen saiatzeko.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

5935

ORDEN de 24 de noviembre de 2010, de la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales, por la que se asigna entre los distintos ayuntamientos y mancomunidades de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la partida extraordinaria de 6.700.000 euros destinada a la ampliación de crédito del programa de Ayudas de Emergencia Social (AES), en el año 2010.

Las Ayudas de Emergencia Social (AES) son una de las prestaciones económicas contempladas en la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social, destinadas a prevenir, evitar o paliar situaciones de marginación social.

En la Ley 2/2009, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la CAPV para 2010, se destina un crédito de 17.300.000 euros para financiar el programa de Ayudas de Emergencia Social (AES) pero se constata que dicha partida resulta claramente insuficiente para atender todas las solicitudes que llegan a los ayuntamientos vascos.

Los 17.300.000 euros inicialmente destinados a las AES fueron asignados a los distintos municipios y mancomunidades de la CAPV de acuerdo a los criterios y la distribución contenida en la Orden de 24 de marzo de 2010, que fue publicada en el BOPV número 56.

Se ha solicitado a los ayuntamientos una previsión de cierre de las necesidades en este programa detectándose que como consecuencia del impacto de la crisis económica la demanda de estas ayudas experimenta un fuerte aumento. Se constata así que la situación está produciendo un notorio empeoramiento de las condiciones de vida de muchos ciudadanos a la vez que una reducción de los recursos económicos disponibles por los ayuntamientos, muchos de los cuales ya venían complementando con sus propios presupuestos las cuantías que recibían del Gobierno Vasco para estos fines.

Es necesario, por tanto, financiar la partida adicional de crédito para cubrir las necesidades del programa de las AES en el ejercicio 2010, por importe de 6.700.000 euros. Se trata de una nueva dotación económica fruto del esfuerzo presupuestario que realiza este Gobierno, en el Año Europeo de Lucha contra la Pobreza y la Exclusión Social, para tratar de paliar las consecuencias de la crisis económica entre la población más desprotegida de nuestra sociedad.

Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 88. artikuluko g) eta h) idatz-zatietan ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dagokie gizarte-larrialdietarako laguntzak onartu edo ukatzea eta ordaintzea. Horretarako, udalek aldez aurretik jakin behar dute urtero gehienez erabil dezaketen diru kopurua, betiere aurrekontu-ekitaldi bakoitzean laguntza horietara zuzendutako guztizko aurrekontu-esleipenaren barruan.

Apirilaren 20ko 199/1999 Dekretuaren V. kapituluak (Finantziazioa eta Transferentziak) programa horri urtean esleitutako baliabideak banatzeko eta transferitzeko prozedura berria ezartzen du. Baliabide horiek banatzeari dagokionez, honako hau ezartzen da: sei hilean behin, Eusko Jaurlaritzan gai horretan eskumena duen Sailak baliabideak banatzeko aurreikusitako irizpideak berraztertuko ditu aurrekontu-ekitaldiaren barruan; horrela, udal bakoitzari esleitutako kredituak egokitu ahal izango ditu udal bakoitzak urtero gehienez erabil ditzakeen zenbatekoak berriz finkatuz, edo bestela, banaketa-irizpide berriak ezarri.

Azkenik, apirilaren 20ko 199/1999 Dekretuaren azken xedapenetatik bigarrenak Dekretu hori garatu eta gauzatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko ahalmena ematen dio Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuari.

Horren arabera, honako hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Xedea.

2010. urtean Gizarte Larrialdietarako Laguntzak estaltzera bideratutako eta pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurka borrokatzeko konpromisoaren ondoriozko 6.700.000 euroko ezohiko kreditu-partida gehigarria banatzeko irizpideak ezartzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko, udal eta mankomunitate bakoitzari gehienez dagokion esleipenezko aurrekontu-muga finkatzea da Agindu honen xedea.

2. artikulua.– Banaketa-irizpideak.

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak estaltzeko kreditu gehigarri horren banaketa honako irizpide hauen arabera finkatzen da:

1.– 1.425.769 euro bideratzen dira 2010. urtean Gizarte Larrialdietarako Laguntzak estaltzeko esleipena 2009ko ekitaldian Gizarte Larrialdietarako Laguntzetarako egindako ekarpena baino txikiagoa duten udal guztientzat, betiere 2010eko martxoaren 24ko Aginduan egindako banaketaren arabera eta Etxebizitza Gastuetarako Prestazio Osagarrian udalerri bakoitzeko hartzaileentzako urteko ekarpenaren aurreikuspenarekin batera.

De conformidad con lo previsto en el artículo 88.g) y h) de la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social, corresponde a los Ayuntamientos de nuestra Comunidad Autónoma el reconocimiento, denegación y pago de estas ayudas, para lo cual deberán conocer previamente su límite anual de disposición, siempre dentro de las consignaciones presupuestarias totales habilitadas al efecto para cada ejercicio presupuestario.

El Decreto 199/1999, de 20 de abril, establece en su Capítulo V (Financiación y Transferencias), el procedimiento para la distribución y transferencia de los recursos anuales asignados al programa. Para la distribución de los recursos se establece que el Departamento del Gobierno Vasco competente en la materia revisará semestralmente, dentro del ejercicio presupuestario, los criterios de distribución de recursos previstos pudiendo, tanto reajustar los créditos asignados a cada Ayuntamiento, fijando los nuevos límites presupuestarios de disposición anual para cada uno de ellos, como establecer unos nuevos criterios de distribución.

Por último, la Disposición Final Segunda del Decreto 199/1999, de 20 de abril, faculta a la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales para adoptar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución de dicho Decreto.

En su virtud,

DISPONGO:

Artículo 1.– Objeto.

Es objeto de la presente Orden establecer los criterios para la distribución de la partida de crédito extraordinaria adicional de 6.700.000 euros destinada a la cobertura de las Ayudas de Emergencia Social en el año 2010, fruto del compromiso de lucha contra la pobreza y la exclusión social y fijar el límite presupuestario de asignación que corresponde a cada uno de los Territorios Históricos, Ayuntamientos y Mancomunidades de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 2.– Criterios de distribución.

La distribución del mencionado crédito adicional para la cobertura de las Ayudas de Emergencia Social, se fija en función de los siguientes criterios:

1.– Se destina 1.425.769 euros a compensar a cada uno de los municipios cuya asignación para cubrir las AES en el año 2010, en la distribución realizada mediante la Orden de 24 de marzo de 2010, junto a la previsión de aportación anual a los perceptores de cada municipio en la Prestación Complementaria de Vivienda (PCV) resulta inferior a la aportación realizada para las AES en el ejercicio 2009.

2.– 5.274.231 euro gehigarri esleitzen dira Gizarte Larrialdietarako Laguntzak estaltzeko, udal-parametro jakin batzuen arabera eta horietako bakoitzaren honako haztapen-koefiziente hauekin:

a) Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria jaso gabe Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten unitateen kopurua: 0,24.

b) Langabetuen kopurua: 0,56.

– Langabetuen guztizko kopurua: 0,46.

– Emakume langabetuen kopurua: 0,10.

c) Etorkinen kopurua: 0,20.

3.– Udal jakinetarako banaka lortutako emaitza bateratu egingo da mankomunitateen eta partzuergoaren kasuetan.

4.– Esleipenaren muga gisa ezartzen da udalak, mankomunitateak edo partzuergoak eskatutako zenbatekoa.

3. artikulua.– Aurrekontu-mugak.

2. artikuluan zehaztutako irizpideak aplikatuz, Autonomia Erkidegoko udal eta mankomunitate bakoitzari dagozkion aurrekontu-mugak finkatzen dira, Gizarte Larrialdietarako Laguntzen programaren barruan agindu honetako eranskinean aipatzen dena 6.700.000 euroko aparteko ekarpen gehigarria betearazteko.

4. artikulua.– Udaletara eta Mankomunitateetara zenbatekoak transferitzeko prozedura.

1.– Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak agindu hau Jaurlaritzaren Kontseiluan argitaratu ondoren ordainduko dizkie udal eta mankomunitateei agindu honen eranskinean esleitutako zenbatekoak, ordainketa bakar batean.

2.– Aurrekontu-ekitaldia ixtean, Euskal Autonomia Erkidegoko udal eta mankomunitateek bakoitzari dagozkion ordainketen behin betiko erregularizazioa egingo dute, aurrekontu-ekitaldian emandako laguntzen benetako ebazpenak oinarri hartuta, eta horretarako, 199/1999 Dekretuaren 35. artikuluan ezarritakoaren arabera Udalei bidalitako dokumentazioa kontuan hartuko dute.

3.– Udalek prestazioen ordainketari aplikatu gabeko soberakin-zenbatekoak Euskadiko Ogasun Nagusiari ordaindu beharko dizkiote.

XEDAPEN GEHIGARRIA

1.– Prozedura bideratzeko oinarrizko izapideak –eskaera, proposamena, ebazpena eta ordainketa– euskarri informatikoan jaso beharko dira. Horretarako, Gizarte.net web-orrialdean badago GLLak kudeatzeko tresna bat, eta udalerriek erabil dezakete eta

2.– Se asignan los 5.274.231 euros adicionales para la cobertura de las Ayudas de Emergencia Social, en función de los siguientes parámetros municipales y con los siguientes coeficientes de ponderación de cada uno de ellos:

a) El número de unidades perceptoras de la Renta de Garantía de Ingresosque no sean perceptores de la PCV: 0,24.

b) El número de personas en desempleo: 0,56.

– Número total de desempleados: 0,46.

– Número de mujeres en desempleo: 0,10.

c) El número de personas inmigrantes: 0,20.

3.– El resultado obtenido individualmente para determinados municipios se agrupa en el caso de las mancomunidades y consorcio.

4.– Se establece como límite de asignación la cuantía solicitada por el municipio, mancomunidad o consorcio.

Artículo 3.– Límites presupuestarios.

En aplicación de los criterios señalados en el artículo 2 se fijan los límites presupuestarios, que corresponden a cada uno de los ayuntamientos y mancomunidades de la Comunidad Autónoma, para la ejecución de la aportación extraordinaria adicional de 6.700.000 euros en el programa de Ayudas de Emergencia Social en el ejercicio 2010, que se señalan en el anexo a la presente Orden.

Artículo 4.– Procedimiento para la transferencia de cantidades a los Ayuntamientos y Mancomunidades.

1.– El Departamento de Empleo y Asuntos Sociales transferirá a los Ayuntamientos y Mancomunidades las cantidades asignadas en el anexo a esta Orden mediante un único pago tras su aprobación por el Consejo de Gobierno.

2.– Al cierre del ejercicio presupuestario los Ayuntamientos y Mancomunidades procederán a la definitiva regularización de los pagos que correspondan sobre la base de las efectivas resoluciones de ayudas concedidas en el ejercicio, teniendo para ello en cuenta la documentación remitida por los Ayuntamientos en virtud de lo establecido en el artículo 35 del Decreto 199/1999.

3.– Los Ayuntamientos deberán reintegrar las cuantías remanentes no aplicadas al pago de las prestaciones, a la Tesorería General de País Vasco.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

1.– Los trámites básicos de instrucción del procedimiento –solicitud, propuesta, resolución y pago– deben constar en soporte informático. Con tal fin, se pone a disposición de los municipios la herramienta de gestión de las AES que reside en Gizarte.net y

erabiltzea gomendatzen dugu; izan ere, aldez aurreko diagnostikoarekin modu koherentean lantzea ahalbidetzen du (teknikoki), eta tresna bera erabil daiteke DBE eta EGPO izapidetzeko, diagnostiko soziala egiteko eta dagokion gizarteratze-hitzarmena negoziatu eta sinatzeko. Hartara, familiekiko esku-hartze integrala osotasun moduan lantzen da, 18/2008 Legean aipatutako prestazioei dagokienez.

2.– Bestela, informazio hori Jaurlaritzara helaraziko da, 2011ko urtarrileko azken egun balioduna baino lehen, erakunde kudeatzaileek erabiltzen dituzten beste aplikazio informatikoetako baten bitartez, GLLen dokumentazioa transmititzeko egokitutako aplikazio informatikoaren bitartez; betiere, Gizartelarrialdietarako laguntzetarako prestazioari buruzko dokumentazioa euskarri informatikoan bidaltzea arautzen duen Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren 2004ko urriaren 8ko Aginduan (2004ko azaroaren 17ko EHAA, 220. zenbakia) xedatutakoari jarraituz.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean hastea.

Jaurlaritzaren Kontseiluak ezagutzen duen egunaren biharamunean hasiko da agindu honen indarraldia.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko azaroaren 24a.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.

se recomienda su uso entendiendo que permite un abordaje técnicamente coherente con el diagnóstico previo y el posible uso de la misma herramienta para la tramitación de la RGI, la PCV y la elaboración del diagnóstico social y la negociación y firma del convenio de inclusión correspondiente, otorgando todo ello una unidad a la intervención integral con las familias en lo referido a las prestaciones de la Ley 18/2008.

2.– En su defecto, se transmitirá al Gobierno dicha información antes del último día hábil del mes de enero de 2011 desde cualquier otra aplicación informática que las entidades gestoras pudieran utilizar, mediante la aplicación informática habilitada para la transmisión de la documentación de las AES, tal y como se indica en la Orden de 8 de octubre de 2004 del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se regula la transmisión mediante soporte informático de documentación relativa a esta prestación de Ayudas de Emergencia Social (BOPV n.º 220, de 17 de noviembre de 2004).

DISPOSICIÓN FINAL.– Entrada en vigor.

La presente Orden surtirá efectos el día siguiente de su conocimiento por el Consejo de Gobierno.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de noviembre de 2010.

La Consejera de Empleo y Asuntos Sociales,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.

ERANSKINA / *ANEXO*

GLL 2010 / *AES 2010*

Arabako LH / *TH de Álava*	Esleipena/*Asignació*
Alegria-Dulantzi	20.020
Amurrio	27.477
Añana	0
Aramaio	5.074
Armiñon	0
Arraia-Maeztu	327
Arrazua-Ubarrundia	6.113
Artziniega	20.126
Asparrena	14.177
Ayala/Aiara	8.442
Baños de Ebro/Mañueta	0
Barrundia	3.611
Berantevilla	0
Bernedo	0
Campezo/Kanpezu	3.132
Elburgo/Burgelu	1.745
Elciego	3.881
Elvillar/Bilar	0
Harana/Valle de Arana	0
Iruña Oka/Iruña de Oca	2.447
Iruraiz-Gauna	476
Kripan	0
Kuartango	0
Labastida/Bastida	5.962
Lagrán	0
Laguardia	3.544
Lanciego/Lantziego	120
Lantarón	1.791
Lapuebla de Labarca	3.162
Laudio/Llodio	36.567
Legutio	7.913
Leza	1.618

Arabako LH / *TH de Álava*	Esleipena/*Asignació*
Moreda de Álava	0
Navaridas	0
Okondo	3.438
Oyón-Oion	29.362
Peñacerrada-Urizaharra	686
Erriberagoitia/Ribera Alta	3.963
Ribera Baja/Erribera Beitia	0
Salvatierra/Agurain	56.729
Samaniego	233
San Millán/Donemiliaga	842
Urkabustaiz	4.639
Valdegovía/Gaubea	2.019
Villabuena de Álava/Eskuernaga	0
Vitoria-Gasteiz	284.000
Yécora/Iekora	0
Zalduondo	476
Zambrana	0
Zigoitia	1.669
Zuia	8.218
Guztira Arabako LH / *Total TH de Álava*	573.999

Bizkaiko LH / *TH de Bizkaia*	Esleipena/*Asignación*
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena	0
Ajangiz	0
Alonsotegi	0
Amorebieta-Etxano	47.558
Arakaldo	900
Arrankundiaga	2.196
Arrigorriaga	37.614
Balmaseda	26.236
Barakaldo	347.073
Basauri	126.862
Bermeo	47.567
Berriz	13.559
Bilbao	1.458.924
Erandio	85.276

Bizkaiko LH / *TH de Bizkaia*	Esleipena/*Asignación*
Ereño	0
Ermua	57.683
Etxebarri	59.529
Galdakao	70.487
Gatika	0
Getxo	193.321
Leioa	87.451
Mallabia	2.372
Maruri-Jatabe	0
Muskiz	38.867
Orozko	0
Ortuella	158.717
Portugalete	179.891
Santurtzi	175.566
Sestao	258.884
Ugao-Miraballes	11.211
Urduña/Orduña	12.242
Valle de Trápaga-Trapagaran	65.874
Zaratamo	0
Zeberio	3.912
Zierbena	10.743
Mungiako Partzuergoa / *Consorcio de Mungia*	0
Arratiako Mankomunitatea / *Mancomunidad de Arratia*	10.905
Busturialdeko Mankomunitatea / *Mancomunidad de Busturialdea*	19.988
Durangoko Mankomunitatea / *Mancomunidad de Durango*	58.827
Enkarterrietako Mankomunitatea / *Mancomunidad de Las Encartaciones*	179.691
Lea-Artibaiko Mankomunitatea / *Mancomunidad de Lea-Artibai*	94.471
Lea-Ibarrako Mankomunitatea / *Mancomunidad de Lea-Ibarra*	9.968
Txorierriko Mankomunitatea / *Mancomunidad de Txorierri*	79.388
Uribe Kostako Mankomunitatea / *Mancomunidad de Uribe Kosta*	0
Guztira Bizkaiko LH / *Total TH Bizkaia*	4.033.753

Gipuzkoako LH / *TH de Gipuzkoa*	Esleipena/*Asignación*
Abaltzisketa	0
Aia	0
Aizarnazabal	0
Alegia	3.000
Altzaga	0
Altzo	169
Amezketa	0
Andoain	60.582
Anoeta	0
Arama	0
Aretxabaleta	38.571
Arrasate/Mondragón	77.239
Asteasu	3.284
Astigarraga	10.011
Ataun	3.854
Azkoitia	19.445
Azpeitia	34.120
Baliarrain	204
Beasain	152.616
Berastegi	315
Bergara	39.703
Berrobi	2.267
Deba	0
Donostia-San Sebastián	473.327
Eibar	77.126
Elduain	96
Elgoibar	0
Errenteria	130.863
Eskoriatza	25.066
Ezkio-Itxaso	113
Gabiria	0
Gaintza	0
Getaria	4.774
Hernani	50.319
Hernialde	0
Hondarribia	0

Gipuzkoako LH / *TH de Gipuzkoa*	Esleipena/*Asignación*
Ibarra	0
Idiazabal	10.923
Ikaztegieta	590
Irun	135.786
Irura	3.051
Itsasondo	0
Lasarte-Oria	93.270
Lazkao	7.008
Legazpi	58.275
Legorreta	3.832
Lezo	40.715
Lizartza	0
Mendaro	12.749
Mutiloa	0
Mutriku	0
Oiartzun	32.237
Olaberria	1.767
Oñati	81.176
Ordizia	32.139
Orendain	0
Orio	15.781
Ormaiztegi	3.211
Pasaia	50.991
Segura	502
Soraluze-Placencia de las Armas	34.040
Tolosa	45.182
Urnieta	0
Urretxu	0
Usurbil	39.131
Villabona	16.066
Zaldibia	0
Zarautz	88.000
Zegama	0
Zerain	287
Zestoa	0
Zumaia	22.102

Gipuzkoako LH / *TH de Gipuzkoa*	Esleipena/*Asignación*
Zumarraga	25.839
Uliko Mankomunitatea / *Mancomunidad de Uli*	1.924
Saiazko Mankomunitatea / *Mancomunidad de Saiaz*	3.000
Aiztondoko Mankomunitatea / *Mancomunidad de Aiztondo*	0
Bideberriko Mankomunitatea / *Mancomunidad de Bideberri*	25.610
Guztira Gipuzkoako LH / *Total TH Gipuzkoa*	2.092.248